



Nafarroako Gobernua
Hezkuntza Departamentua

Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzua

Zuzenketarako Koaderno

2
0
1
4
/
1
5

EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA

DBHko 2. MAILA

HIZKUNTZA GAITASUNA

Izen-deiturak:

Ikastetxea:

Taldea:

Herria:

Data:



Jarraibideak

Proba honetan testu batzuk irakurriko dituzu eta irakurri duzunari buruzko galdera batzuei erantzungo diezu.

Galderak mota batekoak baino gehiagokoak dira. Galderetako batzuek lau erantzun dituzte aukeran, eta haietan zuzena dena aukeratu eta haren ondoan dagoen letra biribil batez inguratu behar duzu. Adibidez:

Zenbat biztanle ditu Iruñeak?

- A Bartzelonak bezainbat.
- B 200.000, gutxi gorabehera.
- C Milioi bat.
- D Zenbait milioi.

Erantzuna aldatzea erabakitzen baduzu, ezabatu **X** batekin lehen erantzuna eta erantzun zuzena biribil batez ingura ezazu, ondoko adibide honetan egin den bezala:

Zenbat biztanle ditu Iruñeak?

- A Bartzelonak bezainbat.
- B 200.000, gutxi gorabehera.
- C Milioi bat.
- D Zenbait milioi.

Beste galdera batzuetan, aldiz, eskatuko dizute (E) egia edo (G) gezurra erantzutea edo erantzuna idaztea puntuak dituen gunean:

Zein da Iruñeko tokirik ezagunena?

.....



Proba hau egiteko 60 minutu dituzu.

Inkesta egin diegu 1.050 laguni 9 autonomia erkidegotan, eta elikadura arloan zer-nolako elkartasun keinuak egin dituzten galdetu diegu.



Elikadura arloko elkartasuna: lautik hiruk elkartasunez jokatu dute azken urtean

Pobreziaren kontzeptuak, gauza guztien gainetik, gabezia esan nahi du. Pobretzat hartzen diren pertsonak ez dute izaten behar adinako diru sarrerarik, elikagairik, etxerik, osasun arretarik, hezkuntzarako sarbiderik... Pobrezia zirkulu bat da, oraingoz etenik ez duena. Egoera horretan, gero eta beharrezkoagoa da herritarren elkartasuna, batez ere oinarrizko beharrak asetzeko balio duena. Eta oinarrizkoetan oinarrizkoena, jatea da.

Garai zailetan, elkartasuna

Azterketa honetan ageri denez, herritarrek elkartasun keinu asko egiten dituzte elikaduraren arloan (elikagaiak eman, familiako norbaiti erosketak egiteko laguntza eman, senitartekoei janaria eskaini...). Guk galdekatu ditugun herritarren artean, adibidez, %77k egin dute elkartasunezko ekintzaren bat azken urtean.

Inplikazio handiagoa

Elkartasuna adierazi duten herritarren artean, bada sentimendu orokor bat: krisiak bultzatu ditu

elkartasuna adieraztera. Horien arteko %64k adierazi dute egoera ekonomiko txarrak eragina izan duela elkartasun ekintza horiek eginarazteko. Gazteek nabarmendu dute hori gehien, 18 eta 24 urte artekoek (%81), eta 64 urtetik gorakoek (%73).

Gainera hamar herritarretik zazpi uste dute Administrazioak gizarte ekimen gehiago abiarazi behar litzukeela. Gaur egun egiten den baino gehiago egin behar litzatekeela uste dute. Eta hiru neurri proposatu dituzte: laguntza ekonomiko gehiago eman ditzatela eta banaketa askoz zuzenagoa egin dezatela; berriz aztertu eta handitu ditzatela behar gehien eta baliabide gutxien duten herritarrei ematen zaizkien gizarte laguntzak; eta, oro har, erakundeetan daudenek inplikazio pertsonal handiagoa ager dezatela eta ulerberagoak izan daitezela herritarrek dituzten zailtasunen aurrean.

Elikagaiak ematea eta lagunei laguntzea

Zer-nolako keinuak izan dira ohikoenak azken urte honetan? Taulan agertzen dira gehien eman diren elkartasunezko ekintzak.

	Pertsonak guztira	Elikagaiak ematea	Familiako norbaiti elikagaiekin laguntzea	Familiak kanpoko norbaiti elikagaiekin laguntzea	Boluntario aritzea elikadura proiektuetan
Andaluzia	234	% 63,5	% 16,5	% 28,7	% 4,0
Balearrak	32	% 52,0	% 24,8	% 27,9	% 7,5
Gaztela-Mantxa	59	% 68,6	% 12,7	% 12,3	% 3,2
Katalunia	222	% 68,1	% 23,3	% 32,9	% 7,6
Valentziako Erkidegoa	150	% 53,8	% 22,6	% 35,1	% 8,0
Galizia	80	% 70,4	% 7,0	% 30,5	% 5,4
Madril	187	% 65,4	% 6,8	% 35,0	% 5,4
Nafarroa	19	% 74,4	% 7,6	% 14,8	% 6,7
EAE	67	% 63,9	% 14,8	% 8,3	% 0,6
Oсотara	1.050	% 63,5	% 16,5	% 28,7	% 4,0


Elikagaien Bankuak

Urtero, Elikagaien Bankuek 100 milioi tona elikagai biltzen dituzte Estatuan. Irabazteko asmorik gabeko elkarte horiek boluntarioen lanean oinarritzen dira, eta han eta hemen soberan geratu diren jakiak bildu eta behar gehien dutenei helaraztea izaten da haien asmoa. Ongintzako elkarten eta gizarte laguntza ematen dutenen esku jartzen dituzte elikagai horiek.

Zer-nolako elikagaiak ematen ditu jendeak? Lekaleak, pasta, zerealak, olioak, esnea eta irabiakiak, azukrea eta gozoak, gailetak eta arrain kontserbak. Erantzun duten herritarren %12k soilik adierazi dute berariaz haurrentzat diren produktuak eman dituztela (pixoihalak, esne hautsa...).

Elikagaien Bankuei emango zaizkien janariak hautatzeko orduan, gomendio batzuk hartu behar dira kontuan: besteak beste, iraungitze-data eta kontsumo-data gomendatua gainditu gabeak izan ditzatela.

Eta elikagaiak zer erakunderi eman dizkioten



ITURRIA: Aldizkari honek egindako mapa INEren, UNICEFen eta FESBALen datuak oinarri hartuta.

galdetuta, gehienek (%41) Elikagaien Bankuak aipatu dituzte. Modu bat baino gehiago dago elikagaiak erakunde horiei emateko: zuzenean haien esku jartzea edo beste eragile batzuekin elkarlanean antolatzen dituzten kanpainen bidez egitea: banaketa kateekin, ikastetxeekin eta Administrazioarekin berarekin (gehienean udalekin). Beste %21ek GKE bati eman dizkiote zuzenean (maizenik *Caritasi* eta *Gurutze Gorriari*), eta %33k beste elkarte mota bati; esaterako, supermerkatuei, elizei edo parrokiei eta ikastetxeei.

Boluntarioak

Espanian bost milioi lagun aritzen dira boluntario gisa. Janaria, higiene produktuak eta ikasmateriala banatzen dituzte, gizarte bazterketa pairatzeko arriskua duten familiekin egoten dira (haurrekin bereziki), ikasleak laguntzen dituzte aparteko eskolak emanez eta ezinduen elkarteetan aritzen dira, beste hainbat gauzaren artean.

Elikadura arloan, boluntario gisa aritzen diren lagunentzat ohikoena da elikagaiak biltzen, antolatzen eta banatzen aritzea.

Pobrezia eta elkartasuna 2012an, erkidegoz erkidego

Tamalez, gosea eguneroko kontua da gure artean. Ia ahaztuta geneukala zirudien baina krisiak goseaz hitz egitera behartu gaitu, elikadura urritasunaz eta elikadura okerraz. Izan ere, arrazoi ekonomikoak direla eta, azken urteotan elikadura desegokia egitera behartutako pertsonen kopuruak gora egin du.

Ondoko mapan pobrezia eta elkartasunaren 2012ko datuak ikus daitezke, erkidegoz erkidego. INEK, UNICEFek eta Espainiako Elikagaien Bankuko Federazioak eman dituzten datuekin osatu dugu.

www.consumer.es (egokitua)

1. Inkestan parte hartu duten gazteen ustez

- A. Krisiarekin gutxitu egin dira elkartasun adierazpenak.
- B. Krisiarekin areagotu dira elkartasun adierazpenak.**
- C. Krisiak ez du eraginik izan elkartasun adierazpenetan.
- D. Gazteek ez dute iritzirik eman horretaz.

2. Inkestaren arabera, zenbat biztanlek uste dute Administrazioaren inplikazioa handitu beharko litzatekeela?

- A. % 24k
- B. % 64k
- C. % 70ek**
- D. % 81ek

3. Inkestaren arabera, zein da herritarrek Administrazioari egiten dioten kritika?

- A. Administrazioak ez duela ezer egiten herritarren beharren aurrean.
- B. Administrazioak gehiago egin beharko lukeela herritarren beharren aurrean.**
- C. Administrazioak inkesta gutxi egiten dituela herritarren beharrak ezagutzeko.
- D. Kritika egiten dutenak elkarriketatuen gutxiengo bat dira.

4. Zer esan nahi du seigarren paragrafoan ageri den “ulerberagoak izan daitezela herritarrek dituzten zailtasunen aurrean”?

- A. Gauza izatea herritarren zailtasunak azaltzeko.
- B. Sentiberagoak izatea herritarren zailtasunen aurrean.**
- C. Gaitasuna izatea herritarren zailtasunei buruzko ikerketak egiteko.
- D. Gaitasuna azaltzea herritarren beharrak aztertzeko.

5. Datuetan oinarrituz, ordenatu herritarren joerak elikagaiak ematerakoan, 1etik 4ra zenbatuz, gehien errepikatzen denari 1 zenbakia jarritz.

- 4** Boluntario gisa aritzea elikadura proiektuetan.
- 3** Familiako norbaiti elikagaiekin laguntzea.
- 1** Elikagaiak ematea.
- 2** Familiaz kanpoko norbaiti elikagaiekin laguntzea.

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	4 - 3 - 1 - 2

6. Zeintzuk dira jendeak gehien ematen dituen elikagaiak?

- A. Berariaz haurrentzat diren produktuak.
- B. Kontsumo-data gomendatua gainditua dutenak.
- C. Iraungitze-data gainditu gabe dutenak.**
- D. Esne hautsa.

7. Zer da GKE?

- A. Gosea Kanpora Erakundea
- B. Gobernu Kanpoko Erakundea**
- C. Gizartea Krisian Erakundea
- D. Gabeziaren Kontrako Elikagaiak

8. Boluntarioek gauza materialak jaso eta banatzeaz gain, beste zerbait egiten dute. Idatzi testuan aipatzen diren beste hiru laguntza mota.

.....

.....
.....

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	Erantzun hauetariko bat edo bi ematen ditu: <ul style="list-style-type: none">- Gizarte bazterketa pairatzeko arriskua duten familiekin egoten dira (haurrekin bereziki).- Ikasleak laguntzen dituzte aparteko eskolak emanaz.- Ezinduen elkarteetan aritzen dira.
2	Hiru laguntza motak aipatzen ditu.

9. Mapan ageri diren autonomia erkidego guztietan egin al da Consumerreko inkesta?

- A. Ez, inkesta 9 erkidegotan egin da bakarrik.
- B. Ez, inkesta 10 erkidegotan egin da bakarrik.
- C. Bai, inkesta 17 erkidego horietan egin da.
- D. Ez, bakarrik pobrezia-arriskuaren tasa altua duten autonomia erkidegoetan egin da inkesta.

10. Loturarik al dago pobrezia-arriskuaren tasaren eta haurren pobrezia-arriskuaren tasaren artean? Zure erantzuna arrazoitu.

.....
.....
.....

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	Baiezko erantzuna, lotura adieraziz edo arrazoituz: <ul style="list-style-type: none">• <i>Bai, orokorrean pobrezia-arriskuaren tasa altua duten erkidegoek badute ere haurren pobrezia-arriskuaren tasa altua. Adibidez, Extremaduran.</i>• <i>Bai, pobrezia arriskuaren tasa handitzen bada, eragina izango du haurren pobrezia-arriskuaren tasan, haurrak familiaren parte direlako.</i>• <i>Bai, datuen arabera oso erlazionatuak daude. Bata altua denean, bestea ere bai, gutxi gora-behera.</i>• ...

11. Mapari eta bere azken paragrafoari erreparatuz, zer ote da FESBAL?

.....

.....

.....

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	Espainiako Elikagaien Bankuko Federazioa Federación Española de Bancos de Alimentos


**12. Testuan ematen diren datuekin, zure ustez justifika daiteke testuaren izenburua?
Arrazoitu zure erantzuna.**

.....

.....

.....

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	Baiezko erantzuna, arrazoituz: <ul style="list-style-type: none">• Bai, herritarren %77k elkartasunezko ekintzaren bat egin dutelako, eta hori 4tik hiru delako, gutxi gorabehera.• Bai. Izenburuan horrela adierazten da: "Elikadura arloko elkartasuna: lautik hiruk elkartasunez jokatu dute azken urtean." Eta datuetan ikus daiteke %77k egin dutela elkartasunezko ekintzaren bat azken urtean.• Bai, datuetan oinarrituz gutxi gorabehera hiru laurdenek elkartasunez jokatu dutelako.• Bai, gutxi gorabehera ehuneko % 75ek elkartasunez jokatu dutelako.• ... Ontzat emango dira baita ere ezezko erantzunak, behar bezala arrazoituak izanez gero: <ul style="list-style-type: none">• Ez. Nahiz eta herritarren %77k elkartasunezko ekintzaren bat egin azken urtean, horrek ez du esan nahi herritarrek orokorrean elkartasunez jokatu dutenik.• 4tik 3k elkartasun ekintzak egin ditu, baina hori ez da elkartasunez jokatzeari. Elkartasunez jokatzeari beste zerbait da.• Ez, gauza bat da elkartasun keinuak egitea eta bestea elkartasunez jokatzeari.• ...



Hizkimilikiliklik!
Iñaki Arranz

Irudiak: Inma Mendiola

Ibaizabal, 2013



Argia, 2014ko urtarrilaren 12a

LIBURU BITXI honen izenburutik bertatik igartzen da hitzekin jolasteko gogo. *Hizkimilikiliklik!* dugu liburu honen izenburua, eta hizkiekin eginiko 28 jolas ageri zaizkigu orrietan barna. Horrela, irakurleak, “b” letraz hasitako hitzez osatu den istorioa aurki dezake (“Behin batean... Beñat Bengoa Bergaretxe basozaina bazihoan bakar-bakarrik basoan barrena...”), izen-abizenak letra berberekin dituzten pertsonaiak poema batean (Luzia Azilu, Garazi Garzia, Itziar Arizti...) edo “a” bokala, eta besterik ez, erabiliz egindako ipuina (“Amama zaharrak laranja atalak, banana azalak, patata kaskarrak, sagar garratzak... danak nahasmahas, askara daramatza. Antzara aldra bat...”).

Irakurleak atal bakoitzean jolas bana topatuko du, batzuetan irakurlearen konplizitatea edo inplikazioa bilatzen duena (desagertutakoa bilatzeko, esaterako), eta beste batzuetan harridura edota irribarrea.

Liburu bitxia Iñaki Arranzen hau, bitxia eta landua, irakurlearengan hizkuntzarekin jolasteko gonbita eragiten duena; idazleak sorturikoen parekoak bururatuko al zaizkio!, edo nondik aterako zaigu hurrengo atalean? Eta, egia esan, 28 letra direnez alfabetoan (alfabetoa azaltzeko ere bada kapitulu edo atal bat), 28 dira liburua osatzen duten atalak. Batzuk nahiko laburrak, hasierako poematxo bezala, baina beste batzuetan proposaturiko jolasak istorio baterako baino, bost istoriotarako ematen du, “Denok zer edo zer faltan” kasuan bezala. Honetan ipuin berbera kontatzen zaigu baina bost bider, eta bakoitzean bokal bat falta delarik kontakizunean, horrela lehenengoan “u” letra gabe kontatzen zaigu neskaxa gazte baten istorioa askara bidean desagertu zena kontatzailearen ondotik pasa eta gero; segidan “o” letra gabe, “i”, “e” eta azkenik “a” gabe kontatuko zaigu neskaxaren desagerpena, horretarako idazleak aldaketa txiki batzuk egin behar baditu ere.

Hizkimilikiliklik! liburu guztiz berezia dugu euskal letretan eta narratibatik duen bezala poesiatik ere badu; are gehiago, nik uste kontakizunak bata bestearen ondoren irakurri beharrean pikatzen, pintxoak bezala, apurka irentsi edo irakurri behar ditugula, bakoitzaren jolasarekin, egileak proposatzen duen jolas horretan partaide izanez.

Arlo gastronomikora ekarriz, 28 gozokiz osaturiko lana dela esan genezake, eta alde horretatik, gozokiak bezala, hauek ere banan-banan, disfrutatuz, hartu beharreko atalak direla. Amaieran irakurleak berak gozoki berri batzuk sortzeko nahiko “errezeta” izango dituelakoan...edo, gutxienez, gozokhizkiak! ■

Xabier Etxaniz Erle

13. Zein da artikuluairen helburua?

- A. Irakurlea entretenitzea.
- B. Ongi pasatzea.
- C. Liburu baten berri ematea.**
- D. Hitzak gozokiak bezalakoak direla esatea.

14. Zein da jolas horien guztien helburua? Kopiatu liburuaren helburua hobekien azaltzen duen artikuluko esaldia.

.....

.....

.....

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	Ondorengoetako esaldiren bat: <ul style="list-style-type: none">– “Liburu bitxia Iñaki Arranzen hau, bitxia eta landua, irakurlearengan hizkuntzarekin jolasteko gonbita eragiten duena”– “(...) irakurlearengan hizkuntzarekin jolasteko gonbita eragiten duena”.– “Irakurleak atal bakoitzean jolas bana topatuko du, batzuetan irakurlearen konplizitatea edo inplikazioa bilatzen duena (desagertutakoa bilatzeko, esaterako), eta beste batzuetan harridura edota irribarrea”.– “(...) batzuetan irakurlearen konplizitatea edo inplikazioa bilatzen duena (...), eta beste batzuetan harridura edota irribarrea”.

15. Nortzuk dira Luzia Azilu, Garazi Garzia, Itziar Arizti?

- A. Istorio bateko pertsonaiak
- B. Gozoki batzuen izenak
- C. Poema bateko pertsonaiak**
- D. Idazlearen lagunak

16. Zer testu mota ageri dira *Hizkimilikiliklik!* liburuan?

- A. Narrazioa eta argudioa
- B. Argudioa eta poesia
- C. Narrazioa eta poesia**
- D. Narrazioa eta azalpena

17. Noiz argitaratu zen liburua?

- A. 2013an**
- B. 2014ko urtarrilaren 12an
- C. Ez dakigu
- D. 2013 eta 2014 bitartean

18. Liburuko azalean "Gaztetxo!" ageri da. Zergatik?

- A. Izenburuaren zatia delako.
- B. Idazlea gaztea delako.
- C. Sail baten izenburua delako.**
- D. 28 jolasak gazteek egindakoak direlako.

19. Zer adjektibo errepikatzen da hiru aldiz? Zergatik uste duzu artikulugileak egin duela hori?

.....

.....


.....

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	Errepikatzen den adjektiboa "Bitxia" da. Adjektibo hori errepikatuz artikulugileak nabarmendu nahi du berarentzat benetan ezohiko liburua dela, benetan bitxia dela, berezia dela.

20. Zer aholku ematen zaigu liburua irakurtzeko?

- A. Liburuaren 28 atalak agertzen diren ordenan irakurtzea.
- B. Lehendabizi poematxo laburrak eta gero istorio luzeak irakurtzea.
- C. Lehenik “u” letra gabe kontatzen zaiguna irakurtzea; segidan “o” letra gabe, “i”, “e” eta azkenik “a” gabe kontatzen dena.
- D. Apurka, banan-banan disfrutatuz.**

21. Artikuluaren zatia (‘’) erabilera derberdinak ikus ditzakegu. Elkartu artikuluaren zatiak komatxoaren erabilerarekin kasu bakoitzean:



Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	2 lotura ongi edo gutxiago.
1	3 lotura ongi.
2	4 loturak ongi.

Izenburua: Garmendia eta zaldun beltza

Egilea: Kirmen Uribe

Argitaletxea: Elkar

Urtea: 2003

Laburpena: Ipar Amerikako Mendebalde Urrunean pistolari ugari izan zen XIX. mendearen hondarretan. Eta pistolari horietako bat Garmendia izeneko ondarrutarra izan zen.


Ez dago desertukoa bezain zeru zabalik. Egunez ematen du itsasoa duzula gainean, baina gauez hartzen du benetan indarra. Gauez, desertuko zeruan adina izarrik ez da ikusten inon. Izarrei begira jarri ziren etzanda Garmendia eta Amalio. Ilargi betea zen, eta haren argiak gutxiagotu egiten zuen izarren indarra, kaktusen itzalak luzeak ziren, baina ez zuen ikusgarritasuna galdu zeruak, manta handi bat ematen zuen, haiek goxo hartzen zituena. Ez zuten beste estalkirik behar, hego-haizea baitzen bazterretan.

Mozoloen uluak entzuten ziren nonahi. Baina laster sumatu zuten zaldi baten lauhazka. Lurretik altxatu eta ezkututzen ahalegindu ziren Garmendia eta Amalio. Bata haitz baten atzean, bestea hiru adar lodi-lodi zituen kaktus handi baten atzean.

- Atera ezkutalekutik, eta hustu patrika guztiak nire begien aurrean, osterantzean infernurako bide zuzena hartuko duzue –esan zuen zaldunak.

Garmendia eta Amalio zeuden tokitik atera ziren, urratsak pixkanaka-pixkanaka emanez eta besoak goian. Izaturik zeuden, eta ez zen harritzekoa. Zaldun haren irudi hutsak beldurrak akabatzen jarriko zuen edonor. Zalduna beltzez jantzita zetorren. Goitik behera. Beltzak zituen botak, beltzak larruzko galtzak, beltza zamarra eta beltza kapela. Aurpegia estaltzen zion zapia eta eskularruak ere beltzak ziren. Baita zaldia ere. Lirain-liraina zen zaldia, gaztea. Ilargiaren argiarekin distira egiten zuen zaldiaren larruak, eta are gehiago egiten zuten distira botetako ezproiek eta eskuan zeuzkan pistola luzeek.

Belauniko jarri ziren Garmendia eta Amalio, begiak lurrean eta eskuak kokotean jarrita.



- Ahots hori –esan zuen bere kolkorako zaldun beltzak–, ahots hori ezaguna egiten zait.

Zalditik jaitsi eta Garmendiaren ondora joan zen.

- Errukitu nitaz –esan zuen Garmendiak begiak itxita, zaldunak jo eta bertan hilko zuela pentsaturik. Baina bizitzak askotan ezustekoak ematen ditu, eta huraxe izango zen bat. Zaldun beltzak besarkatu egin zuen Garmendia ezustean.
- Garmendia zara eta! Urrundik ez zaitut ezagutu!
- Zer? –Garmendiak ez zekien zer pentsatu.

Zaldun beltzak aurpegiko zapia kendu zuen.

- Anton naiz, gizona, zure lehengusua!
- Anton, zenbat urte! Zu al zara zaldun beltza? –galdetu zion barrez Garmendiak.
- *No mames guei!* Garmendiak hau ere ezagutzen du eta – Amalio harri-harri eginda zegoen.
- Badakizu, orain ez du balio soilik lapurra izateak. Orain norberaren irudia ere saldu egin behar da. Hargatik beltzez janztearena, zilarrezko ezproiena eta huskeria horiek guztiak. Mitoa sortzeko halakoak egin behar ditugu lapurrok. Zenbat eta entzute handiagoa, orduan eta izu handiagoa sortzen da jendearen artean. Lehenagotik ematen dizute dirua, eta kito. Ez da arazorik izaten. Azken urteotan ez dut tiro bakar bat ere bota. Nire itxura hutsarekin nahikoa dut edozer gauza lapurtzeko, dela bankua, dela trena, dela bidaiari galduren bat. Orain dena dago espektakuluaren menpe, baita lapur ziztrin hauxe ere.



Kirmen Uribe, *Garmendia eta zaldun beltza*. Elkar, 2003.

22. Zergatik ematen zuten kaktusek itzala?

- A. Desertuan eguzkiak asko jotzen duelako.
- B. Desertuan kaktus altuak daudelako.
- C. Ilargi betea zegoelako.**
- D. Izarren indarra handia zelako.

23. Hotzak zeuden Garmendia eta Amalio?

- A. Bai, desertuan gaez hotza egiten duelako.
- B. Ez, manta handi bat zutelako.
- C. Ez, izarren indarrarengatik.
- D. Ez, hego-haizeak jotzen zuelako.**

24. Testuan “Mozoloen uluak entzuten ziren nonahi” ageri da. Zer esan nahi du?

- A. Gaueko harrapari horren pausoak entzuten zirela.
- B. Gaueko harrapari horren hotsak entzuten zirela.**
- C. Haizeak kaktusen artean egiten zuen hotsa entzuten zela.
- D. Garmendiaren kexuak entzuten zirela, izutu zelako zalduna ikusi zuenean.

25. “Ahots hori, ahots hori ezaguna egiten zait”...

- A. Zaldun beltzak Garmendiari esan ziona da.
- B. Zaldun beltzak Amaliori ahopean esan ziona da.
- C. Zaldun beltzak pentsatu zuena da.**
- D. Zaldun beltzari buruz Garmendiak pentsatu zuena da.

26. Azken paragrafoan “mitoa” hitza erabiltzen da. Zer da?

- A. Uste idealizatu**
- B. Jantzia
- C. Lapurreta
- D. Zaldi mota bat

27. Nor da narratzailea?

- A. Garmendia
- B. Zaldun beltza
- C. Amalio
- D. Beste norbait**

28. Zein izan daiteke testu honen irakaspena edo ondorioa? Azaldu eta jarri gaur egungo adibide bat ere.

.....

.....

.....

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	<p>Itxuraren garrantzia, ospea, edota batzuetan itxurak errealitatea estaltzen duela. Adibidez:</p> <ul style="list-style-type: none"> • <i>Irudiak asko esan nahi duela. Eta gaur egun ere hori gertatzen da, itxuraren arabera baloratzen zaituztela, adibidez, jantzien arabera.</i> • <i>Itxura zaindu behar dela, inportantea delako. Gaur egun, adibidez, politikoak eta jende inportantea dotore jantzita ibiltzen da.</i> • <i>Ematen dugun irudiaren arabera ezagutzen dugula jendea. Adibidez, apiaz bat diferente janzten da.</i> • ...



Segi hurrengo orrialdean!

“Bizikletak ibilgailuak dira, eta zirkulazio araudia bete behar dute”

Manu Gonzalez (Donostia, 1951) Donostiako Bizikletaren Behatokiako idazkari teknikoa da. Hirian, hautsak harrotu ditu udalak iragarritakoak —alegia, joan den astelehenetik isunak jarriko zizkiela segurtasuna urratzen duten txirrindulariei—, baina Gonzalezek ez du ikusten arazorik.

Bizikletaz egiten den bidaia kopuruak gora egin izanak berekin ekarri du arreta areagotu beharra ere. **Donostiako Bizikletaren Behatokiak**, azpiegituretan baino gehiago, heziketan eta garraibide horren sustapenean ikusten ditu erronkak.

Polemika eragin du azken bolada honetan, udala bizikletazaleei isunak jartzen hasi zaiela eta...

Kontu honetan, bi gauza argitu behar dira: batetik, ez da araudi berria; bestetik, ez da udalarena, zirkulazio araudi orokorra Espainia osoan baita aplikatzekoa. Bizikletak ibilgailuak dira, eta, horrenbestez, zirkulazio araudia bete behar dute. Horren arabera gidatu behar dira, eta orain gertatzen ari dena udal arautegian sartuta egotearen ondorioa besterik ez da. Udalak, esaterako, ezin du jaitxi isun kopurua. Bestalde, udalaren oraingo jarreraren helburua ez da segurtasuna lortzea besterik, txirrindulariaren segurtasuna eta oinezkoena. Eta behatokiak berak, egiten dituen txostenen arabera, ikusi du jendeak ez dakizkiela arauak.

Ba al da arau horiek biltzen dituen baliabiderik? Non aurki daiteke horien inguruko informazioa?

Bai. Batetik, arauak zirkulazio araudi orokorrean daude. Bestetik, kultur etxeetan, turismorako informazio bulegoan, www.observatoriodelabicycleta.org webgunean eta beste hainbat tokitan ere badaude arauen eskuorriak eta bidegorri sarearen mapa. Esaterako, D-Biziko txartela [udalaren bizikletak alokatzeko zerbitzua] ateratzera zoazenean, hori ematen dizute.

Zer da Donostiako Bizikletaren Behatokia?

Donostiako Udalak bizikleta plana onartu zuen 2001ean, eta 2004. urtean sortu zen Bizikletaren Behatokia, plana nola zihoan aztertzeko. Kalapieren eta udalaren artean osatutako organo

bat da. Aholkularitza foro bat ere badago; hor, bizikleta erabiltzen duten hainbat pertsona biltzen dira.

Zeintzuk dira Donostiako Bizikletaren Behatokiaren eginbeharrak eta lan eremuak?

Batetik, herritarren kexak eta iradokizunak bideratzen ditugu. Webgune bat dugu horretarako, baita posta kutxa bat ere. Hor, jasotakoan, guk ordaintzen dugu bidalketa, baldin eta kultur etxe eta abarretan aurki daitezkeen horretarako orriak erabiltzen badira. Esaterako, bizikleta aparkatzeko toki gehiago eskatzen du jendeak, edo esaten digute oztopo den zuhaixka bat dagoela bidean... Bizikleta erabiltzaileek esandakoa begiratzen dugu guk: alegia, kexua egiaztatzen dugu. Horrekin, hilerio txosten bat bidaltzen zaio udalari, eta pertsonari erantzun egiten zaio, egoera zein den azaltzeko eta horren arrazoiak zehazteko. Bestetik, mugikortasuna aztertzen dugu. Urtero, begiratzen dugu zenbat bizikleta erabiltzaile dauden. Era berean, begiratzen dugu ea aipatutako plana betetzen ari den, eta hor hobetzeko proposamenak ere egiten ditugu. Azkenik, proposamenak egiten ditugu bizikleta garraibide gisa sustatzeko.

Nolakoa da bizikletaren egoera Donostian?

Egoera esaldi bakarrean laburbil dezakegu: bizikleta Donostiako hiri paisaiaren parte da orain. Hirian hamar edo hamabost urtean egon ez den pertsonak ikusiko du hori: orain bizikleta hiri bat dela. Datu esanguratsu bat dago: 15.000 lekualdatze egiten dira egunero bizikletaz. Azken urtean, ia %25 igo da. Gaur egun, bizikleta udan erabiltzen da, baina baita neguan ere; hau da:

hautsi egin da udarekin zuen lotura. Bestalde, noiz hasi da jendea bizikleta gero eta gehiago erabiltzen? Bada, segurtasuna eta erosotasuna areagotu direnean; hau da, azpiegiturak zabaldu direnean bidegorriak eta bizikletak seguru erabiltzeko.



Nolakoa da Donostiako Udalaren jarrera bizikletari dagokionez?

Azkeneko urteetan, bultzada politiko eta tekniko bat izan da, baina baita herritarren bultzada bat ere. Hiru oinarri horiek behar dira kultura osagaiak aldatuko dituen gizarte egitasmo arrakastatsu batean. Autoa eta motorra toki guztietan daude, eta kaleen zein hirigintzaren ardatz dira. Gure herriak, joan den mendearen bukaeran eta honen hasieran, ibilgailu partikularren mesedetan egin dira. Ohitura horiek eta hiriaren forma aldatzeko, hiru hanka behar dira: erabaki politikoa, erabaki teknikoa eta gizartearen eskaera. Horiek guztiak izan dira

azkeneko urteetan, eta inbertsio handia egin da azpiegiturretan. Hala eta guztiz ere, hezkuntzan ez da inbertitu behar beste. Modu horretan, jende askok darabil bizikleta, baina ez dakizki gidatzeko arauak, ezta segurtasun arauak ere. Esate baterako, helduenak eta haurrak ez dira ausartzen 30eko eremuetan ibiltzen [bizikletek lehentasuna izanik ibilgailu motordunekin batera erabiltzen diren errepideak, orduko 30 kilometroko muga dutenak], eta espaloietara igotzen dira; beraz, zerbaitetan hobe badaiteke, gidarien heziketan eta sustapenean egin beharko litzateke aurrera.

Heziketaz gain, ba al du bizikletaren erabilerak beste argi-ilunik Donostian?

Hiritik irteteen, beste herrietara joateko bideak falta dira. Beste erronka da jendea auzo garaietara iristea; jendeak uste du Donostia lau dela, eta hori ez da horrela. Hemen, biztanleen % 40 eremu altuetan bizi da: Altza, Intxaurren, Aiete... Hori da errealitatea. Oinezkoentzako eta bizikletazaleentzako mugikortasun bertikalerako plana onartua dago, baina, diru falta dela eta, auskalo zer gertatuko den.

Gipuzkoako Hitza. 2012ko ekainaren 1a

29. Testuaren hasieran zera esaten da: “Donostiako Bizikletaren Behatokiak, azpiegiturretan baino gehiago, heziketan eta garraiobide horren sustapenean ikusten ditu erronkak.” Zure ustez, bat al dator baieztapen hori Manu Gonzalezek esaten duenarekin? Erabili elkarrizketatuak ematen duen esaldiren bat zure erantzuna justifikatzeko.

.....

.....

.....

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	Baiezko erantzuna, ondorengo esaldiren bat aipatuz erantzuna justifikatzeko: <ul style="list-style-type: none"> – “Beraz, zerbaitetan hobe badaiteke, gidarien heziketan eta sustapenean egin beharko litzateke aurrera.” – “(...) inbertsio handia da azpiegituretan. Hala eta guztiz ere, hezkuntzan ez da inbertitu behar beste.” – “(...) jende askok darabil bizikleta, baina ez dakizki gidatzeko arauak, ezta segurtasun arauak ere.”

30. Non edo nola eskuratu daitezke bizikletaz zirkulatzeko arauak? Aipatu testuan aipatzen diren 5 modu.

.....

.....

.....

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	2 modu edo gutxiago aipatzen ditu.
1	Ondorengoetako 3 modu aipatzen ditu: <ul style="list-style-type: none"> a) Araudi orokorrean b) Kultur etxeetan c) Turismorako informazio bulegoan d) www.observatoriodelabizicleta.org webgunean e) D-biziko txartela ateratzean / udalaren bizikletak alokatzeko zerbitzuan
2	4 edo 5 modu aipatzen ditu.

31. Donostiako Bizikletaren Behatokiaren eginbeharrak eta lan eremuak aipatzean (4. galderan) testu-antolatzaileak erabili dira. Idatz itzazu lau:

.....

.....

.....

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	2 testu-antolatzaile edo gutxiago aipatzen ditu.
1	Ondorengoetako 3 testu-antolatzaile idazten baditu: <ul style="list-style-type: none"> - Batetik - Bestetik - era berean - azkenik
2	4 testu-antolatzaile idazten ditu.

32. Donostian bizikletaren gaur egungo egoeraren gainean Manu Gonzalezek zera dio: **“hautsi egin da udarekin zuen lotura”**. Zer esan nahi du horrekin?

- A. Bizikletak udan gehiago apurtzen direla.
- B. Bizikleta ez dela udan bakarrik erabiltzen.**
- C. Bizikleta neguan udan bezainbeste erabiltzen dela.
- D. Txirrindulariek udalarekin harremanak apurtu dituztela.

33. Duela gutxi arte izan diren hiriak diseinatzeko joera eta jendearen garraioarekiko ohiturak aldatzeko, elkarrizketatuak hiru faktore aipatzen ditu. Zeintzuk dira?

.....

.....

.....

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	“Bultzada politikoa, bultzada teknikoa eta herritarren bultzada.” Edo, “Erabaki politikoa, erabaki teknikoa eta gizartearen eskaera”.

34. Manu Gonzalezen ustez, zeri begira egin ohi da herrien diseinua XX. mendearen bukaeran?

A. Ibilgailu partikularrei begira.

B. Bizikletaren erabilerari begira.

C. Oinezkoei begira.

D. Garraio publikoari begira.

35. 30eko eremuetan...

A. Bizikletak ezin dira ibili, espalora igo behar dute.

B. Ibilgailu motordunak ezin dira ibili, bizikletentzako esparruak direlako.

C. Helduenak eta haurrak ezin dira bizikletaz ibili, segurtasun arrazoiengatik.



D. Bizikletak eta ibilgailu motordunak ibili daitezke.

